

2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen ingurumen dimentsioa



Orainean jardutea, etorkizunean pentsatuta.

GIH ETA 2030 AGENDA

Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIHak) Nazio Batuen ekimena dira, mundu zabalean honako hauxe xede duten politikak eta ekintzak abian jartzeko: txirotasuna desagerraraztea, planeta babestea eta etorkizuneko belaunaldientzako oparotasuna bermatzea.

Horretarako, 2015ean, herrialde kideek 17 GIHko Ekintza Plana ezarri zuten 2030. urteari begira: **“Garapen Iraunkorrerako 2030 AGENDA”**.



GIHen JATORRIA

2000. urtean, 189 herrialdek “Nazio Batuen Milurteko Adierazpena” sinatu zuten, eta 2015. urterako era guztietako txirotasun gorria desagerrarazteko konpromisoa hartu zuten. Bete egiten zela egiaztatzeko, 8 helburu ezarri ziren, “Milurteko Garapenerako Helburuak” (MGH), alegia, eta 21 jomuga zein 60 adierazle zehaztu ziren bertan.

2015ean, emaitzak ebaluatu ondoren, beste aurrerapauso bat eman zen nazioarteko konpromiso berri baten eskutik, eta 4 herrialde berrik bat egin zuten: GIHak eta 2030 Agenda.


IRAUNKORTASUNA, HELBURU UTZIEZINA

1987an, "garapen iraunkorra" terminoa Nazio Batuen Erakundeak (NBEk) egindako "Gure etorkizun erkidea" txostenean erabili zen, "etorkizuneko premiak kolokan jarri gabe gaur egungoei aurre egiteko" ideiarekin adierazgarri. Hori lortzeko, gure ongizatearen 3 osagai handiak hartu behar dira kontuan: **ingurumena, ekonomia eta gizartea**.

1992an, ideia hori **Rio de Janeiroko Goi Bilerako Ingurumenari eta Garapenari buruzko Adierazpenean** hartu zen kontuan. Handik aurrera, "garapen iraunkorra" eta "iraunkortasuna" kontzeptuak mundu zabalean gizarteratu ziren, eta nazio-mailako zein tokiko gobernuek eta ingurumeneko elkarteek hori lortzeko sentsibilizaziorako eta ekintzarako kanpainak jarri zituzten abian.

Gaur egun, honako ezaugarri hauek dituen gizarterantz aurrera egiten jarraitzen dugu: hazkuntza ekonomiko inklusiboa, kohesio eta justizia sozial handiagoa, bakea eta ingurumenaren etorkizun iraunkorra.

*2030 Agenda,
honako hauxe
duen agenda...*



"INOR ATZEAN EZ UZTEA"

Lelo horren bidez, **2030 AGENDAK** 17 GIHak modu integral bezain unibertsalean eta partaidetzapean lortu behar direla adierazi nahi digu. Batera egindako lanaren inguruko konpromisoa da, desberdintasunak eta bazterketa desagerrarazteko helburua egia bihurtu dadin.

HORRETARAKO...

Lurralde bakoitzeko gobernuek bere politika publikoak eta lehentasunak zehaztu behar ditu, bere lurraldeko errealitateko inguruabarrak kontuan hartuta.



Eusko Jaurlaritzak giza garapen iraunkorrerako erronka globalari begira dituen konpromisoa eta ekarpena I. **Euskadi Basque Country 2030 Agendan** gauzatzen dira, eta, bertan, 2017-2020ko epealdia hartzen da kontuan.

17 GIHEN INGURUMEN-ALDERDIA

INGURUMENA, BIZIRAKO, ONGIZATERAKO ETA GARAPENERAKO DIMENTSION INTEGRALA

Ingurumen osasungarria, ingurune naturalean edo artifizialean, funtsezkoa da erkidegoen bizitzarako eta garapenerako. Hartara, gure ingurune hurbileko baldintzak guztiak (ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arlokoak) funtsezkoak dira gure bizitzan, gure ongizatea eta oparotasun bateratua haien menpe daudelako. Aldi berean, gure ingurumen hurbileko baldintzek munduko beste leku batzuetan izan dezakete eragina; eta alderantziz.

Edateko ura
Kontsumo arduratsua
Partaidetza soziala
Saneamendua **Itsas bizitza**
Erakunde sendoak **Osasuna**
Lurreko bizitza **Ekoizpen arduratsua**
Genero berdintasuna **Lan duina**
Aliantzak **Ekosistemetako zerbitzuak**
Teknologia iraunkorra **Bizi-kalitatea**
Teknologia eraginkorra **Aire garbia**
Kalitateko hezkuntza

Uholdeak **Gosea**
Erkidegoetako gizarte-desberdintasuna
Txirotasuna **Kutsadura** **Lehortea**
Ingurumeneko errefuxiatuak
Klima aldaketa **Bereizkeria**
Paisaiaren degradazioa
Biodibertsitatearen galera



Lurrak oinarritzko ondasun naturalak eskaintzen dizkigu bizitzeko (airea, elikagaiak...) eta aurrera egiteko (energia, mineralak, sendagaiak...).

Gure ongizatea ekosistemen eta haien eskaintzen dizkiguten zerbitzuen menpe dago, baita haien erabilera iraunkorraren menpe ere.

"Tximeleta baten hegoen hegada munduaren beste aldean sentitu daiteke".

Esaera zahar txinatarra

JAKIN...JARDUN

Hurrengo belaunaldiek baldintza osasungarrietan eta ongizatez bizitzeko aukera izan dezaten, oso-oso kontuan hartu behar dugu ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arloko ingurumen-arazo larriak daudela mundu zabalean nahiz tokian-tokian eta ekosistemetako ondasun naturalak zein zerbitzuak jartzen dituztela arriskuan. **Guztiok** gure ingurune hurbilaren eta gure kulturaren arabera **baldintza duin bezain osasungarrietan bizitzeko aukera edukitzea izan behar da helburua**. Horretarako, arduraz jokatu behar dugu lekuarekin, naturarekin eta beste erkidego batzuekin. Era berean, honako hauxe ere sustatu beharra dago: informazioaren zabalkunde irekia, iraunkortasunaren aldeko hezkuntza, teknologia garbien garapena eta esparru zibilean nahiz politikoan partaidetzazkoak, errespetagarriak, bidezkoak eta solidarioak diren gizarteak.

Esan bezala, gizaki guztion hezkuntza funtsezkoa da. Ikaskuntzak jakintza sortzen du, eta, aldi berean, behar bezala, saiakuntza moduan eta erkidegoan partekatuta ezartzen denean, ongizatea eta oparotasuna sortzen ditu.

Etorkizun iraunkorraren aldeko apustua egin dezagun!

Ikasteko gaitasuna norberaren trebetasunen eta abilezien arabera da, norberaren garapenerako eremu oparo, antz eta irekian.



Bazenekien...

...2014an UNESCOK (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak) Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari (GIH) buruzko **Aichi-Nagoya Adierazpena** onartu zuela?

Besteak beste, nabarmendu egiten du GIH bera aukera eta erantzukizuna dela eta, bere bitartez, herrialdeak gehiago ahalegindu behar direla, txirotasuna desagerrarazteko, desberdintasunak murrizteko, ingurumena babesteko eta ekonomia bultzatzeko. Horrela, berdintasunezkoagoak eta iraunkorragoak diren eredu ekonomikoak eta gizarteak sustatuko dira herrialde guztien onerako.

Ingurumen
hezkuntza ez da
irakasten, egin
egiten delako.

Francesco Tanuci



Garapen
Iraunkorrerako
Hezkuntza funtsezko
baliabidea da garapen
iraunkorra egia
bihurtu dadin.

JAKIN...JARDUN

Etorkizuna gure esku dago



GIHAK ABIAN

Ziur hainbat eta hainbat gauza txiki egin ditzakegula planetaren, ingurune sozialaren nahiz ingurumen-ingurunearen eta gure zein munduko gainerako erkidegoen ongizatearen mesederako.

Badago gure planetaren etorkizun iraunkorraren alde tokian-tokian...



...jarduterik, zuk zeuk erabaki: etxetik, eskolatik, lanetik, herritik edo zure hiriko auzotik egin dezakezu zeure ekarpena...

B azenekien...

...**plogginga** kirol-joera berria dela eta running tradizionala uztatzen duela zaborra biltzeko ekintzarekin? 2016an jarri zen abian Suedian, plastikozko hondakinen inguruko kezka handitu zenean, eta munduaren gaineratikora hedatu da. Zeuk ere parte hartu!



Bizkaian, Foru Aldundiak zenbait ekimen zuzendu edo babesten ditu, eta honako hauexek ditu helburu: sektore publiko eta pribatua, talde bereziak (ikastetxeak, esaterako) eta herritarrak.



Ikasle, unibertsitario eta herritarrentzat

Programa honek iraunkortasunerantz aurrera egitea eta GIHen lorpena sustatzea dauka xede, eskolan, unibertsitatean eta etxean eguneroko ohituretan egindako aldaketa errazen bidez. **Izena emango dugu?**



Udalentzat: eraikin publikoetako aurrezki energetikoa

Europako proiektu honek udal-eraikin publikoetako energiaren kontsumo arduratsua saritzen du ordain ekonomikoaren bitartez.

Udal-ekipamenduak (eskola, liburutegia, kiroldegia...) behar besteko konpromisoa hartzen du, proiektua zuzentzeko eta zenbait jarduketa egoki ezartzeko; eta udalak (fakturak ordaintzen dituenak), lortutako aurrezki ekonomikoaren %50 partekatzen.

IKASLEENTZAKO INGURUMEN-HEZKUNTZA

Bizkaiko ikastetxeek dohainik parte hartu dezakete gure ingurune hurbilenaren, ingurumeneko arazoan... gaineke sentsibilizaziorako tailerretan.

Tailerak



SOINUAREN KALITATEA

KUTSADURA AKUSTIKOAK

SOINU-ZARATA: Soinuaren kalitateari buruzko sekuentzia didaktikoa



BESTE MATERIAL BATZUK:



Material didaktikoak

Unitate didaktiko honen bidez, Bigarren Hezkuntzako ikasleek badute munduko arazo nagusietan eta errealitate hurbilarekin duten lotunean sakontzerik, hausnartzerik eta GIHa lortzeko ekintzak proposatzerik.



ZUK ERE PARTE HARTU!

JAKIN...JARDUN



**BIODIBERTSITATEAREN
ARTAPENA ETA BASOEN
BERRESKURAPENA**
Hitzaldiak, txango gidatuak
eta borondatezko lanerako
jardunaldiak. Lurraldearen
zainketa.



**BERDEAGO
AUZOA**, Energy eta
Nature formatuetan.
Orain, lankidetzarako
plataforma eta sare
moduan ari da
hedatzen.

LURRA



**HEGAZTIEN
MUNDUA ETA HAIEN
MIGRAZIOAK**
Urdaibaiko paduretan behatzeko,
gozatzeko eta ikasteko
ekipamendua.



**BIZIKLETA
ERABILTZEA**,
eguneroko eta
aisialdiko joan-
etorrietarako ohitura
osasungarri eta
iraukor moduan.



ADIBIDE SOLIDARIOA.
Gizartean baztertuta edo
bazterketa-arriskuan daudenak
laneratzea eta gizarteratzea, honako
jarduera hauen bidez: ingurumeneko
zerbitzuak, berrerabilpena eta
birziklapena, kontsumo iraunkorra,
prestakuntza, pertsonen
arreta...

**Erakunde hauen eta zure
udalerriko beste erakunde
batzuen jardueren agenda kontsultatu!**



Fridays for Future - Nazioarteko Ikasleen Mugimendua Klima Aldaketaren Aurka

Planetako bi hemisferioetako ikasleek ostiral
berberetan egiten dute manifestaldia, gobernuei
klima-aldaketaren aurkako ekintza eraginkorrak
eskatzeko eta etorkizuna eduki ahal izateko.

JAKIN...JARDUN



GEHIAGO JAKITEKO...

- ↘ 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak. Nazio Batuen Erakundea (NBE).
- ↘ Garapen Iraunkorrerako Helburuak. Europako Batzordea.
- ↘ Euskadi Basque Country 2030 Agenda. Euskal ekarpena Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendari.
- ↘ Tokiko 2030 Agenda. IHOBE.
- ↘ Garapen Iraunkorrerako Helburuak. UNESCO Etxea.
- ↘ Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Aichi-Nagoya Adierazpena. UNESCO.
- ↘ Euskadiko Iraunkortasunerako Hezkuntzako 2030eko Estrategia.
- ↘ Garapen Iraunkorrerako Helburuak. Bizkaia Talent.
- ↘ "Nola hasi GIHrekin unibertsitateetan" gidaliburua. REDS.
- ↘ Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendako Adierazleak. INE.
- ↘ SOS 17x17 txostenaren emaitzak. Iraunkortasunaren Behatokia.
- ↘ Batera 2030. Garapen Iraunkorrerako Helburuen Behatoki Feminista.



Lurra zaintzen badugu, geure burua zaintzen dugu